



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2021/06/22an EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 22/06/2021 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain

Eskoriatzan, 2021eko ekainaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Udalbatza, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 22 de junio de 2021 , quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria telemática bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Ander Errarte del Pozo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABNEFC.8sJk>

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria
2021/06/22



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2021eko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuraren akta onartu da.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2021eko ekainaren 15era arte hartutako erabakien berri eman da.

792. erabakiari dagokionez (GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK. 2021. urteko ekarpena), Eluska lrazuk galdetu du ea aurrekontua jasotako zenbatekoa den edo beste kontzeptu batengatik den. Josuk erantzun dio onartutako aurrekontuan jasotako dirulaguntza dela. Zehaztu du aurrekontuan jasotako 26.500 euroko dirulaguntza dela.

Berariaz jakinarazten dira 11., 12. eta 13. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiak.

3.- ESKORIATZATIK MAZMELA ELIZATERAKO GURDIBIDE ZAHARRAREN TITULARITATEA IKERTZEKO ESPEDIENTEA HASTEKO ESKAERA.

Sara Jauregui Llorens andreak, María del Carmen Biain Arregui andrearen ordezkari gisa, Eskoriatzatik Mazmela Elizaterako jatorrizko gurdibidea Udalaren titulartasuneko den zehazteko ofiziozko ikerketa-espedientea hasteko eskatu du.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa ikusi da.

Kontuan hartzen da ikerketa egiteko eskubidearen helburua dela titularitaterik ez duten ondasunen egoera ikertzea Udal honetakoa izan daitezkeenaren zantzuak daudenean.

Eskoriatza-Mazmela errepidearen titulartasuna Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatu zitzaion, eta gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tokiko Errepide Sarearen parte da, Udal honetan dagoen Errepideen Katalogoan jasota dagoenez.

Aurrekoaren ondorioz, eta Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko azaroaren 25eko 17/94 Foru Arauaren 3. artikularen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio errepide horren titulartasuna, eta, beraz, jatorrizko bideari buruzko edozein ikerketa-ekintza Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazio horretan aurkeztu behar da (aipatutako Foru Arauaren 110. artikulua xedatzen duenez, errepideen eta bideen titular diren administrazioei dagokie bideen jabari publikoko ondasunen jabetza berreskuratzeko administrazio-ahalmena). Hori dela-eta, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Sara Jauregui Llorens andreak, María del Carmen Biain Arregui andrearen ordezkari gisa, Eskoriatzatik Mazmela Elizaterako jatorrizko gurdibidea Udalaren titulartasuneko den

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria
2021/06/22

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

zehazteko ofiziozko ikerketa-espedita hasteko egindako eskaera **EZESTE**A erabaki honen aurrekarietan jasotako arrazoiengatik.

4.- 10. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 10. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onspen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bozkatu ostean, bertaratutako EH BILDUko 3 zinegotzi abstenituta, eta bertaratutako gainerako udal batzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 10. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0400.226.338.00.06 2021	JAIK	30.000,00	12.000,00	18.000,00
1 0100.221.161.00.02 2021	UR PATZUERGOA	11.587,64	5.800,00	5.787,64
	GUZTIRA	41.587,64	17.800,00	23.787,64

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria
2021/06/22

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Partida (*)	Izena	Hasierak o kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0400.481.341.20.01 2021	DIRU LAGUNTZA: ESKORIA.KIROL ELKARTE	30.000,00	3.200,00	33.200,00
1 0600.481.335.00.01 2021	DIRU LAGUNTZA:EUSKARA	2.000,00	2.600,00	4.600,00
1 0400.226.334.00.08 2021	EKINTZAK:KULTURA	15.000,00	6.000,00	21.000,00
1 0400.226.334.10.08 2021	EKINTZAK:IKUSKIZUNA.KULT URA	15.000,00	6.000,00	21.000,00
	GUZTIRA	62.000,00	17.800,00	79.800,00

* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

5.- 2020-2023 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 3/2021 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren 2021-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko edo aldatzeko.

Aldaketa horiek honako hauek dira:

A.- 1. LERRO ESTRATEGIKOAN, KULTUR DINAMIZAZIOA: 1.000 eurotan handitzea F) programa, aste zapatista antolatzeako dirulaguntza, eta 1.000 eurotan gutxitzea A) programa, Eskoriatzan egiten diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

B.- 2. LERRO ESTRATEGIKOAN, KIROL SUSTAPENA: 3.200 eurotan handitzea B) programa, Eskoriatzako Kirol Elkartea, areto-futbol atala sortu zeneko 25. urteurrena ospatzeko kirol elkarteak antolatutako ekitaldiak finantzatzen laguntzeko.
C. 5. LERRO ESTRATEGIKOAN, EUSKARA: hurrenez hurren 1.100 eurotan eta 1.500 eurotan handitzea A) programa, euskara ikasteko dirulaguntzak eta C) programa, hizkuntz errefortzurako dirulaguntzak.

Eraginpeko arlo bakoitzak egindako eskaerei erantzunez eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, bertarututako EH BILDUKO 3 zinegotziek abstenituta eta gainerako zinegotziek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 1.000 eurotan handitzea 1. LERRO ESTRATEGIKO F) programa, aste zapatista antolatzeko dirulaguntza.

F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza.

HARTZAILEAK: TEPEZ Elkartea

HELBURUA: Aste zapatista antolatzeko dirulaguntza. Besteak beste hitzaldiak, mahai-inguruak, kontzertuak, ikus-entzunezkoen emanaldiak, umeentzako ekintzak, "zapatista eguna" eta sukaldaritza tailerrak antolatzen dira.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 500 € + 1.000 €.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.50.01 partida

Bigarrena.- 1.000 eurotan gutxitzea 1. LERRO ESTRATEGIKOAREN A) programa, Eskoriatzan egiten diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak.

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

HELBURUA: Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jarduerari diruz laguntzea.

LORTU GURA DENA: Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzea eta herritarren eta kultur elkarten parte hartzea eta lankidetzaren sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 2.000 € - 1.000 € = 1.000 €.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.00.01 partida

Hirugarrena.- 3.200 eurotan handitzea 2. LERRO ESTRATEGIKOAREN B) programa, Eskoriatzako Kirol Elkartea.

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

HARTZAILEAK: Eskoriatza Kirol Elkartea.

HELBURUA: Eskoriatzako Kirol Elkarteari diruz laguntzea kirol federatua sustatzeko ohiko jarduerak egiteko.

LORTU GURA DENA: Kirola egitea sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRULAGUNTZA MOTA: Dirulaguntza izenduna, hitzarmen erregimenean.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 30.000 € + 3.200 €.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.20.01 partida

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno Ordinaria

2021/06/22

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Laugarrena.- 5. LERRO ESTRATEGIKOAREN, EUSKARA, ondorengo programak handitzea:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Euskara ikasteko dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Euskaltegian matrikulatuta egon eta Eskoriatzan erroldatuta daudenak.

HELBURUA: Euskara ikastaroak finantzatzeko dirulaguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: Euskararen ezagutza sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 1.200 € + 1.100 €.

FINANTZIAZIOA: 0600.481.335.00.01 partida

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Hizkuntz errefortzutarako dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: Haur hezkuntza edo lehenengo hezkuntzako 4. mailara arte ikasten ari diren eta beraien adinerako behar besteko euskara mailarik ez duten Eskoriatzako ikasleak.

HELBURUA: Hizkuntz prestakuntza ematea euskararen ezagutzan eta erabileran zailtasunak dituzten ikasleei.

LORTU GURA DENA: Ikasleei behar besteko euskara maila ematea beraien ikasketak behar besteko ezagutzarekin jarraitu ahal izateko, eta gainera, horrek herriko bizitza sozialean integratzen lagunduko die.

DIRULAGUNTZA MOTA: Laguntza jenerotan emateko norgehiagoka.

2021eko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 800 € + 1.500 €.

FINANTZIAZIOA: 0600.481.335.00.01 partida

6.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkaturik, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientearen onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- Preskripzioagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 7.625,37 €.

IFZ	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
B20680526	JARDUERA	2016	A020875 4201		140,59		PRESKRIPZIOA.

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

	ENPR.			702,99		843,58	
B20680526	JARDUERA						
	ENPR.	2016	A020875 520X	527,22	105,44	632,66	PRESKRIPZIOA.
B43687375	JARDUERA						
	ENPR.	2016	A030132 2207	527,22	105,44	632,66	PRESKRIPZIOA.
B48300271	JARDUERA						
	ENPR.	2016	A022425 520E	246,05	49,21	295,26	PRESKRIPZIOA.
B75097030	JARDUERA						
	ENPR.	2016	A041940 720G	2.759,19	551,83	3.311,02	PRESKRIPZIOA.
B09397134	JARDUERA						
	ENPR.	2016	A025253 820K	492,08	98,41	590,49	PRESKRIPZIOA.
B20473385	JARDUERA						
	ENPR.	2016	A026807 420K	572,54	114,50	687,04	PRESKRIPZIOA.
A01048040	JARDUERA						
	ENPR.	2016	A007787 220E	527,22	105,44	632,66	PREZKRIZIOA.
GUZTIRA				6.354,51	1.270,86	7.625,37	

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoetara beste arrazoiren batzuegatik preskribatuzat edo baliogabetuzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

7.- HERRIKO JAI EGUNA 2022-RAKO PROPOSATZEA.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaraturako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du 2022ko ekainaren 29a izendatzea herriko jaieguna.

8.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEKO BAIMENA BERRESTEA.

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gizarte Zerbitzuetako batzordeak 2021GLEE0002 zenbakiko espedientedun pertsonari gizarte larrialdietarako etxea aldi baterako erabiltzeko behin-behineko emandako baimena berrestea.

Bigarrena.- ESKORIATZAKO UDALAK KUDEATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEAREN BARNE ERREGIMENEN ERREGELAMENDUKO 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baimenaren indarraldia luzatu ahal izango da, aldez aurretik horren



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

beharra egiaztatzen bada, eta zerbitzuaren ardura duen gizarte langileak aldeko txostena egin eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak baimentzen badu.

9.- GALDE-ESKEAK.

Hitza emanda, Josu Ezkurdiak honakoa esan du: "Nik zenbait argibide eman nahi nituzke onartu dugun aktan jasotako gai bati buruz, garapen ekonomikoaren arloko laguntzen eta garatutako jardueren ondorioz sortu zena. Guk esaten genuen ia ekimen guztiak gureak zirela eta EH BILDUK esan zuen beraiek ere proposamenak egiten zituztela. Gaia argitze aldera, iazko eta aurtengo akta guztiak aztertu ditugu, eta ikusi dugu zer proposamen aurkeztu diren eta nork aurkeztu dituen. Eta esan behar dugu 12 akta aztertu ditugula eta akta horietan hainbat proposamen daudela, eta zoritxarrez, pena delako, ekarpen guztiak EAJk egin dituela. Orain xehetasun gehiago emango ditut, baina oso triste da gauza bat esatea kamerak aurrean daudelako eta gero errealitatea oso desberdina izatea. Adibidez: 2020ko urtarrileko batzordean EAJ/PNVk lokalak alokatzeko laguntzak onartzea proposatu zuen eta EH BILDUK ez zuen ekarpenik egin. 2020ko martxoko batzordean EAJ/PNVk Iparraldeko produktuen azoka bat egitea proposatu zuen, gero gauzatu ez bazen ere, baina ideia hor dago. EAJ/PNVk proposatuta Eskoriatza Jasangarria ekimena aurkeztu zen. Era berean, EAJ/PNVk proposatuta, landa-auzoak dinamizatzeko programa jarri zen martxan. EH BILDUK ez zuen ekarpenik egin. 2020ko apirileko batzordean, alarma-egoeran jadanik, EAJ/PNVk proposatuta, tokiko merkataritzari eta udalerriko enpresa txikiei zuzendutako inkesta bat egin zen, gero errealitatera hobeto egokitutako laguntza-programak garatu ahal izateko. EH BILDUK proposatu zuen Udalak abian jarri nahi zuen laguntza-programa jakinaraztea, baina ez zuen ekarpenik egin. 2020ko ekaineko batzordean, ostalaritzako edukiera murriztuta zegoenean, EAJ/PNVk jakinarazi zuen taberna batzuekin lanean ari zirela terrazetarako espazioa handitzeko eta akordio bat lortu nahian kokaleku egokiak aurkitzeko. EH BILDUK galdetu zuen noiz jarriko zen martxan laguntza-programa, baina ez zuen ekarpenik egin. 2020ko uztailleko batzordean, EAJ/PNVk proposatuta, bonuen lehen kanpaina jarri zen martxan. EH BILDUK ez zuen ekarpenik egin. 2020ko iraileko lehen batzordean, EAJ/PNVk proposatuta, bonuen bigarren kanpaina jarri zen abian. EH BILDUK ez zuen agertu eta, beraz, ez zuen ekarpenik egin. 2020ko iraileko bigarren batzordean, EAJ/PNVk proposatuta, enpresa txikietan enplegua mantentzeko laguntza-programa aurkeztu zen. EH BILDUK proposatu zuen establezimenduei laguntzea higiene-produktuak erosten. Beraz, 2020 osoan, irailean egiten zuten lehenengo proposamena. 2020ko urriko batzordean, EAJ/PNVk proposatuta, Gabonetako jarduerak aurkeztu ziren. 2020ko azaroko batzordean, EAJ/PNVren botoarekin, hainbat tabernari terrazak handitzeko baimena eman zitzaion. EH BILDUK ez zuen aldeko edo kontrako botorik eman, ez zirelako batzordera agertu. 2021eko otsaileko batzordean ez dago ekarpenik, 2021eko martxoko batzordean ez dago ekarpenik, eta 2021eko apirileko batzordean ez dira agertzen, eta, ondorioz, ez zuten ekarpenik egin.

Eluska Irauzu: hasteko, a ze kontrola! ai, ama! Ez dakit, hainbat arrazoiengatik batzorderen batera joan ez garenean beti justifikatu izan dugu. Justifikazio horiek ulertzen ez badira edo ulertu nahi ez badira, hor ez gara sartuko; baina guztiak justifikatuta daude. Absentziak ez daude justifikatuta ikasleek ikastetxeetan edo langileek enpresa batean eraman behar dituzten moduko ziurtagirirekin, ba ez, ez daude. Idatziz egin behar bada, eskertuko genuke guri esatea edo txantiloia bat ematea entregatu ahal izateko. Horretaz gain, ez dugu inoiz esan proposamenik egin ez duzuenik, noski egin dituzuela, baina guk ere bai, eta, zehazki, aurreko osoko bilkuran egoitzarako onartu zen dirulaguntza aurrekontuen garaian planteatu genuen, eta

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria
2021/06/22

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

erantzuna ezezkoa izan zen. Ezetza onartu genuen eta esan genuen ez genuela berriro proposamen hori egingo. Udal lokalak aldatzeko proposamenean, lantzen hasi ginen eta batzorde batean planteatu nuen, hurrengo batzordean gaia lantzen hastea proposatu nuen eta gure proposamenaren berri ematea. Erantzun bezala baiezkoa ulertu nuen. Gure partehartzea hor dago, gure ideiak ere hor daude. Ez daukat ezer gehiago esateko. Beste zerbaiti erantzun behar diot? Ez dakit.

Josu Ezkurdia: oso ondo, baina errealitatea gogorragoa da. 12 aktatan proposamen bakarra. Proposamen bakarra, eta, gainera, aurretik onartuta zegoen eta eman behar zela esateko dirulaguntza bati buruzkoa. Ez dut esan nahi gaizki dagoenik aurreikusitako dirulaguntzak eman behar direla esatea. Gainera, datu horiek ez ditut ekarri zuen jarduera kritikatzeko asmoz, baizik eta osoko bilkuraren azken saioan egin zenuten iruzkinaren aurrean bizilagun batzuen artean sortu zitezkeen zalantzak argitzeko; eta, bestalde, zuen ekarpenak eta proposamenak benetan entzun nahi ditudalako; datuak direnak dira, 12 akta dira eta zuek ekarpen bakarra, eta guk 20 edo gehiago egin genituen. Egia da gu garela gobernu-taldea, eta gure ardura dela udal-politika bultzatzea; baina pandemiak daramagun urte eta piko honetan, zuen aldetik ekarpen gehiago eskertuko genituzke. Legegintzaldiko bi urte luze geratzen zaizkigu oraindik, eta pilak jarri eta herri hau aurrera ateratzen lagundu. Mila esker.

Eluska Irauzu: aurreko osoko bilkuran eskatu genuena, eta behin baino gehiagotan eskatu dugu, hausnarketa bat egitea da, eta oraindik ez dago eginda, beno, eginda badago, ahoz eginda dago, baina guk behintzat ez dugu ezer idatziz jaso. Eta hausnarketa ez da kritika negatibo gisa ulertu behar, ez dakit horrela interpretatu duzuen, baina proiektu bat gauzatzekoan ona da hausnarketa bat egitea eta espirtu "kritikoa" izatea positiboa eta negatiboa dena ikusteko eta negatiboa dena berriz ez errepikatzeko. Guk aurreko osoko bilkuran eskatzen genuena hausnarketa hori da, etorkizuneko dirulaguntzekin aurrekoekin gertatu dena berriro gerta ez dadin. Hori da eskatzen duguna, hausnarketa bat, dirulaguntzak ondo etortzen dira beti, baina ematen baldin badira, askoz hobeto.

Alkateak: nik aurreko osoko bilkuran esan nuena azpimarratu nahi dut, dirulaguntza bat ematen denean irizpide batzuen arabera eman behar da, eta laguntza horiek jaso nahi dituen orok irizpide horiek bete beharko ditu. Hori esanda, eta jokoaren arauak argi izanda, gero, bakoitzak nola jokatu duen beste gauza bat da. Ez dut uste inor laguntzarik gabe geratu denik arauak bete baditu. Hori esan ondoren, amaitutzat ematen dut gai honi buruzko eztabaida.

Jarraian, alkateak aurreratu du uztailean hilaren 22an egingo dela osoko bilkura, eta ez 27an, eta osoko bilkura berezia izango dela; eta jakinarazi du aurten ere, aurreikuspenak hobekak izan arren, ez direla San Pedro jaiak ospatuko, nahiz eta jarduera zehatz batzuk egingo diren. Gaineratu du erroka berri baten aurrean gaudela: ekainaren 26tik aurrera, norberak aukeratu ahal izango du maskara kaletik erabili ala ez. Horrek esan nahi du beste urrats bat dela 2022an San Pedroak normaltasunez ospatu ahal izateko itxaropena izateko. Amaitzeko, San Pedro jai zorientsuak opa dizkie bai zinegotzietan bai bilkura jarraitzen ari diren herritar gutzietan.

A continuación el Alcalde adelanta que durante el mes de julio la sesión del pleno se celebrará el día 22 y no el día 27, y que será un pleno extraordinario; e informa que este año, aunque las perspectivas sean mejores, tampoco se celebrarán las fiestas de San Pedro, si bien habrá algunas actividades puntuales. Añade que nos encontramos ante un nuevo reto, que es que a partir del próximo 26 de junio, cada uno podremos elegir si usar o no la mascarilla por la calle. Eso supone, dice, que es un paso más para tener la esperanza de que en el 2023 podamos



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

celebrar los San Pedros con normalidad. Termina su intervención deseando unas felices fiestas de San Pedro tanto a los concejales como a todos los vecinos/as oyentes.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura egun honetako 18:25ean.
Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 25 de mayo de 2021 .

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da traslado de las resoluciones dictadas hasta el día 15 de junio de 2021.

En relación a la Resolución Nº 792 (GOIENA KOMUNIKAZIIO ZERBITZUAK. 2021.urteko ekarpena) Eluska Irauzu pregunta si se trata de la cantidad prevista en el presupuesto o se debe a algún otro concepto. Josu le responde que se trata de la subvención prevista en el presupuesto aprobado. Se concreta que se trata de la subvención de 26.500 euros prevista en el presupuesto.

De forma expresa se da cuenta de la resoluciones aprobatorias de los expedientes de modificación de créditos Nº 11, nº 12 y nº 13.

3.- SOLICITUD PARA INCOAR EXPEDIENTE DE INVESTIGACIÓN DE TITULARIDAD DEL ANTIGUO CAMINO CARRETIL ESKORIATZA-ANTEIGLESIA MAZMELA

Dña. Sara Jauregui Llorens, actuando en representación de María del Carmen Biain Arregui, ha solicitado se incoe expediente de investigación de oficio para determinar si es de titularidad municipal el camino carretil original Eskoriatza-Anteiglesia de Mazmela.

Vista la documentación presentada junto con la solicitud y

CONSIDERANDO que la potestad de investigación tiene por objeto averiguar la situación de aquellos bienes cuya titularidad no consta pero existen indicios de que pudieran corresponder a este Ayuntamiento.

RESULTANDO que la titularidad de la carretera Eskoriatza-Mazmela fue traspasada a la Diputación Foral de Gipuzkoa y en la actualidad la misma forma parte de la Red Local de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa, según consta en el Catálogo de Carreteras obrante en este Ayuntamiento.

RESULTADNO que como consecuencia de lo anterior, y de conformidad con lo dispuesto en el art. 3 de la Norma Foral 17/94, de 25 de noviembre, de carreteras y caminos de Gipuzkoa, la titularidad de dicha carretera corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa; y que por ende, el ejercicio de cualquier acción investigadora en relación al denominado comino original debe ser

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria
2021/06/22

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

planteado ante dicha Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa (el art. 110 de la referida Norma Foral dispone que corresponde a las Administraciones titulares de carreteras y caminos la facultad administrativa de recuperación posesoria sobre los bienes de dominio público viario), es por lo que , de conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

DESESTIMAR, por las razones que constan en los antecedentes de este acuerdo, la solicitud cursada por Dña. Sara Jauregui Llorens, actuando en representación de María del Carmen Biain Arregui, y consistente en que se incoe expediente de investigación de oficio para determinar si es de titularidad municipal el camino carretil original Eskoriatza-Anteiglesia de Mazmela.

4- EXPEDIENTE Nº 10 DE MODIFICACION DE CREDITOS

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 10 , mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Personal y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, con las abstención de los 3 concejales presentes de EH BILDU y el voto a favor del resto, ACUERDA :

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 10 , mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

Partidas de gasto que transferirán créditos (bajas)

Partida	Denominación	Crédito inicial	Reducción	Crédito final
1 0400.226.338.00.06 2021	FIESTAS	30.000,00	12.000,00	18.000,00
1 0100.221.161.00.02	CONSORCIO DE	11.587,64	5.800,00	5.787,64

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2021	AGUAS			
	TOTAL	41.587,64	17.800,00	23.787,64

Partidas de gasto que recibirán créditos (altas)

Partida (*)	Denominación	Crédito inicial	Incremento	Crédito final
1 0400.481.341.20.01 2021	SUBVENCIÓN: ESKORIA. KIROL ELKARTE	30.000,00	3.200,00	33.200,00
1 0600.481.335.00.01 2021	SUBVENCIÓN: EUSKERA	2.000,00	2.600,00	4.600,00
1 0400.226.334.00.08 2021	ACTIVIDADES: CULTURA	15.000,00	6.000,00	21.000,00
1 0400.226.334.10.08 2021	ACTIVIDADES: ESPECTÁCULOS. CULTURA	15.000,00	6.000,00	21.000,00
	TOTAL	62.000,00	17.800,00	79.800,00

* Se podrán crear nuevas partidas presupuestarias

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

5.- MODIFICACION 3/2021 DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2020-2023.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

Aprobado, se ha visto la conveniencia de modificar algunas de las previsiones contempladas en su Anexo 2021, con el fin de ampliar o modificar el ámbito subjetivo y/ o objetivo de algunos de los programas de subvenciones de las diferentes líneas estratégicas.

Dichas modificaciones consisten en:

A.- En la LINEA ESTRATEGICA 1 DINAMIZACION CULTURAL : ampliar en 1000 euros el programa F) subvención para organizar la semana zapatista y disminuir en 1000 euros el Programa A) Subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrollen en Eskoriatza.

B.- En la LINEA ESTRATEGICA 2 PROMOCIÓN DEL DEPORTE: incrementar en 3.200 euros el programa B) Eskoriatzako Kirol Elkartea para ayudar en la financiación de los actos a organizar por la asociación para conmemorar el 25 aniversario de la creación de la sección de fútbol.

C.- En la LINEA ESTRATEGICA 5 EUSKERA: incrementar respectivamente en 1.100 euros y en 1.500 euros el Programa A) Subvenciones para el aprendizaje del euskera y el Programa C) Subvenciones para refuerzos lingüísticos

En respuesta a las solicitudes cursadas por cada una de las áreas afectadas y de conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, el Pleno, con las abstención de los 3 concejales presentes de EH BILDu y el voto a favor del resto, ACUERDA:

Primero: Ampliar en 1000 euros el programa F) subvención para organizar la semana zapatista de la LINEA ESTRATEGICA 1

F) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: subvención para organizar la semana zapatista.

DESTINATARIOS: TEPEZ Elkartea

OBJETO: subvención para organizar la semana zapatista en Eskoriatza. Entre otras actividades, se organizan charlas, mesas redondas, conciertos, proyecciones, actividades para los niños, el "día zapatista" y talleres de cocina.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Subvención nominativa, en régimen de convenio

COSTES PREVISIBLES 2021: 500 € + 1000 €

FINANCIACIÓN: Partida 0400.481.334.50.01

Segundo: Disminuir en 1000 euros el programa A) subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrollen en Eskoriatza de la LINEA ESTRATEGICA 1.

A) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: Subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrollen en Eskoriatza.

DESTINATARIOS: Personas físicas o jurídicas que cumplan los requisitos fijados en las Bases que regulen la convocatoria.

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria
2021/06/22



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

OBJETO: Ayudar económicamente a los programas y actividades culturales que se programen durante el año en Eskoriatza.

EFFECTOS PRETENDIDOS: Ofrecer en el municipio actividades culturales de calidad y fomentar la participación y colaboración entre los ciudadanos y las asociaciones culturales.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Concurrencia competitiva

COSTES PREVISIBLES 2021: 2.000 € - 1000 € = 1000 euros

FINANCIACIÓN: Partida 0400.481.334.00.01

Tercero: Incrementar en 3.200 euros el programa B) Eskoriatzako Kirol Elkarte de la LINEA ESTRATEGICA 2

B) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: Eskoriatzako Kirol Elkarte

DESTINATARIOS: Club Deportivo Eskoriatza.

OBJETO: Ayudar económicamente al Club Deportivo de Eskoriatza para el desarrollo de su actividad ordinaria de fomento del deporte federado.

EFFECTO PRETENDIDO: Potenciar y fomentar la práctica del deporte, sobre todo en la población más joven.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Subvención nominativa, en regimen de convenio

COSTES PREVISIBLES 2021: 30.000 € + 3.200 €

FINANCIACIÓN: Partida 0400.481.341.20.01

Cuarto: Incrementar los siguientes programas de la LINE ESTRATEGICA 5 d EUSKERA

A) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: Subvenciones para el aprendizaje del euskera

DESTINATARIOS: Empadronados en el municipio de Eskoriatza que estén matriculados en un euskaltegi.

OBJETO: Conceder ayudas económicas para la financiación de cursos de euskera.

EFFECTO PRETENDIDO: Fomentar el conocimiento del euskera.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Concurrencia competitiva

COSTES PREVISIBLES 2021: 1.200€ + 1.100 €

FINANCIACIÓN: Partida 0600.481.335.00.01

C) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: Subvenciones para refuerzos lingüísticos

DESTINATARIOS: Alumnos y alumnas de Eskoriatza que estén cursando educación infantil o primaria hasta 4º curso de Primaria, y que no tengan el nivel de euskera suficiente para su edad.

OBJETO: Ofrecer preparación lingüística a alumnos y alumnas con dificultades en el conocimiento

y uso del euskera.

EFFECTO PRETENDIDO: Preparar a alumnos y alumnas en un nivel de conocimiento de euskera, para poder cursar sus estudios con conocimiento suficiente, y que además le ayudará a integrarse en la vida social del municipio.

MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: Concurrencia competitiva en la modalidad de ayuda en especie.

COSTES PREVISIBLES 2021: 800 € + 1.500 €

FINANCIACIÓN: Partida 0600.481.335.00.01

6.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Ohiko Osoko Bilkura

Pleno Ordinaria

2021/06/22

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

- Baja de derechos pendientes de cobro por prescripción: 7.625,37 €.

IFZ	CONCEPTO	AÑO	LIQUIDACIÓN	CUOTA	RECARGO	TOTAL	MOTIVO
B20680526	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A020875 4201	702,99	140,59	843,58	PRESCRIPCIÓN.
B20680526	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A020875 520X	527,22	105,44	632,66	PRESCRIPCIÓN.
B43687375	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A030132 2207	527,22	105,44	632,66	PRESCRIPCIÓN.
B48300271	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A022425 520E	246,05	49,21	295,26	PRESCRIPCIÓN.
B75097030	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A041940 720G	2.759,19	551,83	3.311,02	PRESCRIPCIÓN.
B09397134	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A025253 820K	492,08	98,41	590,49	PRESCRIPCIÓN.
B20473385	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A026807 420K	572,54	114,50	687,04	PRESCRIPCIÓN.
A01048040	ACTIVIDAD EMPR.	2016	A007787 220E	527,22	105,44	632,66	PRESCRIPCIÓN.
TOTAL				6.354,51	1.270,86	7.625,37	

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

7.- PROPUESTA DE FESTIVO LOCAL PARA EL AÑO 2022



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno acuerda fijar el día 29 de junio de 2022 como festivo local.

8.- RATIFICACIÓN DE LA AUTORIZACIÓN PARA HACER USO DE LA VIVIENDA DE EMERGENCIA SOCIAL

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

Primero: Ratificar la autorización provisional concedida por la Comisión de Servicios Sociales a la persona con nº de expediente 2021GLEE0002 para que haga uso temporal del piso de emergencias social.

Segundo: De conformidad con lo previsto en el art. 6 del REGLAMENTO DE RÉGIMEN INTERIOR DEL PISO DE EMERGENCIA SOCIAL GESTIONADO POR EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, el plazo de vigencia de la autorización podrá ser ampliado en el supuesto que, previa acreditación de la necesidad, sea informada favorablemente por la Trabajadora Social responsable del servicio y autorizado por la Comisión de Servicios Sociales.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Concedida la palabra, Josu Ezkurdia interviene en los siguientes términos: “ Yo quisiera hacer una serie de aclaraciones sobre una asunto que consta en el acta que hemos aprobado y que surgió con motivo de las ayudas y actividades desarrolladas desde el área de desarrollo económico. Nosotros decíamos que casi la totalidad de las iniciativas eran nuestras y EH BILDU dijo que ellos también hacían propuestas. En aras a esclarecer el asunto, lo que hemos hecho es analizar todas la actas del año pasado y las de este y ver qué propuestas se han presentado y quien ha sido el que las ha presentado. Y hemos de decir que hemos analizado 12 actas y que en esas actas hay varias propuestas y por desgracia, porque es una pena, todas las aportaciones han sido hechas por EAJ/PNV. Ahora daré más detalles, pero es muy triste decir una cosa porque las cámaras están delante y luego que la realidad sea otra cosa muy diferente. Por ejemplo: en la comisión de enero de 2020 EAJ /PNV propuso la aprobación de ayudas para el alquiler de locales y EHBILDU no hizo aportación alguna. En la comisión de marzo de 2020 EAJ/PNV propuso hacer una feria de productos de Iparralde, que aunque luego no se hizo la idea está ahí. A propuesta de EAJ/PNV se presenta la iniciativa Eskoriatza Jasangarria. También a propuesta de EAJ/PNV se pone en marcha el programa para dinamizar los barrios rurales. EHBILDU no hizo aportación alguna. En comisión de abril de 2020, ya en estado de alarma, a propuesta de EAJ/PNV se lanza una encuesta dirigida al comercio local y a pequeñas empresas del municipio, para luego poder desarrollar programas de ayudas más adecuadas a la realidad. EH BILDU propone que se ponga en conocimiento el programa de ayudas que el ayuntamiento pretendía poner en marcha, pero no hace ninguna aportación. En la comisión de junio de 2020, habiéndose reducido el aforo en la hostelería, EAJ/PNV da cuenta de que se está trabajando con algunos bares la ampliación del espacio destinado a terrazas y tratando de llegar a un acuerdo para encontrar emplazamientos adecuados. EH BILD preguntó cuando se pondría en marcha el programa de ayudas, pero no hizo ninguna

Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Ordinaria
2021/06/22



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

aportación. En la comisión de julio de 2020, a propuesta de EAJ/PNV se pone en marcha la primera campaña de bonos. EHBILDU no hace ninguna aportación. En la primera comisión de setiembre de 2020, a propuesta de EAJ/PNV, se pone en marcha la segunda campaña de bonos. EHBILDU no apareció y por tanto, tampoco hizo aportaciones. En la segunda comisión de setiembre de 2020, a propuesta de EAJ/PNV, se presenta el programa de ayudas para el mantenimiento del empleo en las pequeñas empresas. EH BILDU propone que se ayude a los establecimientos en la compra de productos higiénicos. Por tanto, en todo el 2020 la primera propuesta que hacen es en setiembre. En la comisión de octubre de 2020, a propuesta de EAJ/PNV se presentan las actividades de Navidad. En la comisión de noviembre de 2020, con el voto de EAJ/PNV, se autoriza a varios bares la ampliación de las terrazas. EHBILDU no votó ni a favor ni en contra, porque no aparecen a la comisión. En la comisión de febrero de 2021 no hay aportaciones, en la comisión de marzo de 2021 no hay aportaciones y en la comisión de abril de 2021 no aparecen, y en consecuencia tampoco hacen aportaciones.

Eluska Irauzu: Para empezar, ¡menudo control! ¡madre mía!. No se, cuando no hemos asistido a alguna comisión por distintos motivos siempre lo hemos justificado. Si no se entienden esas justificaciones o no se quieren entender, ahí no entraremos; pero todas están justificadas. No están justificadas las ausencias con certificados como los que han de llevar los alumnos en los centros escolares o los trabajadores en una empresa, pues no, no lo están. Si hay que hacerlo por escrito, pues agradeceríamos se nos dijese, o se nos facilitase una plantilla para poder entregar. A parte de eso, nunca hemos dicho que no habéis hecho propuestas, por supuesto que las habéis hecho, pero nosotros también, y en concreto la subvención que se aprobó para la residencia en el anterior pleno la planteamos cuando los presupuestos y recibimos un no por respuesta. Asumimos el no y dijimos que no volveríamos a hacer esa propuesta. En la propuesta para el cambio de locales municipales, empezamos a trabajar y lo planteé en una comisión, propuse empezar a trabajar con el tema en la próxima comisión y dar traslado de nuestra propuesta. Entendí como respuesta el sí. Nuestra participación está ahí, nuestras ideas también están ahí. No tengo más que decir. ¿tengo que responder a algo más? No sé.

Josu Ezkurdia: Muy bien, pero la realidad es más dura. En 12 actas una sola propuesta. Una única propuesta y encima sobre una subvención que ya estaba aprobada con anterioridad y para decir que había que concederla. No digo que esté mal el decir que hay que sacar adelante las subvenciones previstas. Además no he traído estos datos con la idea de criticar vuestra actuación, sino para aclarar las dudas que pudieron surgir entre algunos vecinos/as ante el comentario que hicisteis en la última sesión del pleno; y por otro lado porque realmente quiero oír vuestras aportaciones y propuestas; los datos son lo que son, son 12 actas y vosotros una única aportación y nosotros hicimos 20 o más. Es cierto que nosotros somos el equipo de gobierno y es nuestra responsabilidad impulsar la política municipal; pero en este año y pico que llevamos de pandemia hubiéramos agradecido más aportaciones por vuestra parte. Todavía nos quedan dos largos años de legislatura y poneros las pilas y ayudarnos a sacar adelante este pueblo. Gracias.

Eluska Irauzu: Lo que el anterior pleno pedimos, y lo hemos pedido en varias ocasiones, es que se haga una reflexión, y todavía no está hecha, bueno, si, sí está hecha, está hecha oralmente, pero al menos nosotros no hemos recibido nada por escrito. Y no se trata de una reflexión como crítica negativa, no se si lo habéis interpretado así, pero cuando se lleva adelante un proyecto es bueno hacer una reflexión y tener un espíritu "crítico" para ver lo positivo y lo negativo y no volver a repetir lo negativo. Nosotros lo que pedíamos en el anterior



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

pleno es esa reflexión para que no vuelva a pasar con la futuras subvenciones lo que ha ocurrido con las anteriores. Lo que pedimos es eso, una reflexión, las subvencione siempre vienen bien , pero si llegan a conceder mucho mejor.

El Alcalde: Yo quiero incidir en lo que ya dije en el anterior pleno, cuando se da una subvención hay que darla con unos criterios, y todo el que quiera acceder a esas ayudas deberán de cumplir con esos criterios. Dicho eso, y teniendo claras las reglas del juego, luego, como actúa cada uno, ya es otra cosa. No creo que haya quedado alguien sin recibir ayuda alguna si ha cumplido con las reglas. Dicho esto, doy por finalizado el debate sobre este asunto.

A continuación el Alcalde adelanta que durante el mes de julio la sesión del pleno se celebrará el día 22 y no el día 27, y que será un pleno extraordinario; e informa que este año, aunque las perspectivas sean mejores, tampoco se celebrarán las fiestas de San Pedro, si bien habrá algunas actividades puntuales . Añade que nos encontramos ante un nuevo reto, que es que a partir del próximo 26 de junio, cada uno podremos elegir si usar o no la mascarilla por la calle. Eso supone, dice, que es un paso más para tener la esperanza de que en el 2022 podamos celebrar los San Pedros con normalidad. Termina su intervención deseando unas felices fiestas de San Pedro tanto a los concejales como a todos los vecinos/as oyentes.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:25 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.